

## **0-3 URTEEN ARTEKO IRAKASKUNTZARAKO NEURRIAK HARTZEKO HERRI EKIMEN LEGEGILEA BULTZATZEKO JUSTIFIKAZIO MEMORIA**

Nafarroan, egunetik egunera, gero eta beharrezkoagoa da 3 urte azpiko haurren eskubideei erantzutea, bai eta familien beharrei eta gizarte errealitate berriei ere.

0 eta 3 urte arteko haurrek gizarte eskubideak dituzte, taretean, hezkuntzarako eskubidea, Gobernuak bermatu behar duena, Haurren Eskubideen Konbentzioan ezarritako oinarrien arabera, eta eskubide hau, unibertsala eta borondatezkoa, hala nahi duen guztiak betetzeko aukera behar du.

Nafarroako errealitatea bada herri anitzek ez dutela 0-3 ikastetxerik, bertze batzuek euren Udalen zorpetzearen bizkar dute, eta edonola ere, urterik urte, Nafarroako milaka familiak euren seme-alabentzako plaza publikorik gabe gelditzen dira.

Ikuspegi honekin, familia hauek bertze aukera batzuk bilatu beharko dituzte: ikastetxe pribatu batera jo, aitatxi-amatxiek edo bertze pertsona batzuek zaintzea, edo amak lana uztea, alderdi honetan, oraindik, gizartean ez baita berdintasunik lortu.

Egoera hau gertatzen da Nafarroako Gobernuak ez duelako bermatzen hezkuntzarako eta kalitaterako eskubiderik, pertsonen formakuntzarako hain garrantzitsua den garaian, eta ez duelako jakin nahi 0-3 urteen artean hezkuntza behar bat eta eskubide bat dela haurrentzat.

0-3 ikastetxeek, gizartean, desberdintasunen konpentsazio funtzio garrantzitsua betetzen dute, emakumeak lan mundura sartzeko hautua errazten du, eta gurasoen lan bizimodua eta familia bizimodua uztartzen ditu, euren seme-alabaren heziketarekin partekatua izateko.

Nafarroako Gobernuaren politika honek 0-3 Haur Eskolen Udalen Asanblea (Nafarroako 50 udalerrri baino gehiago biltzen dituenak) Herri Ekimen Legegile bat bultzatzea ekarri du, eta kalitatezko eskaintza publikoa aldarrikatzen dugu, eskariari erantzunen diona, eta familia guztien eskura egonen dena.

## **0-3 ARTEKO IRAKASKUNTZARAKO NEURRIEN GAINEN FORU LEGERAKO PROPOSAMENA**

### **ZERGATIEN AZALPENA**

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistema Orokorraren Antolakuntzaz ari dena, bere 7. artikuluan biltzen du haur hezkuntza, sei urteak artekoa, izaera boluntariokoa izanen dela, eta Administrazio Publikoek hala eskatzen dutenei eskolaratzea ziurtatzeko plaza kopuru bermatuko dietela.

Ondoren, abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzaren Kalitateari dagokiona, eta oraindik ezartze prozesuan dagoena, 10. artikuluan bildu du Eskola aurreko Hezkuntza hiru urteak arteko haurrei bideraturik dagoela, lehen haurtzarolari heziketa eta asistentzia arreta eskaintzeko helburuarekin. Honek, “gurasoentzat izaera boluntarioa du. Administrazio eskudunek familien beharrei erantzunen diete, eta eskaerari aurre egiteko eskaintza koordinatuko dute, plaza kopuru nahikoa bideratuz.

Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan herri anitz da 0-3 urte arteko ikasgaraiari erantzuteko ikastetxerik ez dutenak, bertze batzuetan soilik titularitate pribatukoak daude, eta azkenik, bertze batzuetan titularitate munizipalekoak dira, Udalentsat horiek sortzea eta mantentzea arazo handiko kontua izanik. Edonola ere, plazen eskaintza ez da nahikoa dagoen eskariari aurre egiteko, eta ikasturte bakoitzean Nafarroako familia anitz euren seme-alabentzako plazarik gabe gelditzen dira, eta titularitate pribatuetakoei aurre egiteko bitartekorik ez dute.

0-3 ikasgaraietan lanean diharduten ikastetxeek arlo sozialean funtzio garrantzitsua betetzen dute, ezberdintasunen orekan, emakumeei lan munduratzeko aukerak eskaintzen dizkie, eta gurasoen lan eta familia bizitza seme-alaben heziketarekin bateragarriago egiten laguntzen dute.

**1. artikulua.** Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bidez, eta irakaskuntzaren alorrean dagozkion eskuduntzen arabera, 0-3 urteko hezkuntza zentruetan dagoen eskariari aurre egiteko plaza kopurua ziurtatuko du.

**2. artikulua.** 0-3 urteko hezkuntza zentruak, titularitatea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Udalei dagokiena, sare bakarrean txertatuko dira, eta bere kudeaketaz Hezkuntza Saila arduratuko da.

**3. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren gain 0-3 urteko ikastetxe publikoen finantziario sistema bat ezarriko da, horien finantziario egokia ziurtatuko duena. Udalek ikastetxe hauen mantenuan lagunduko dute, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan egiten duten modu beretsuan.

**4. artikulua.** Nafarroako Gobernuak prezio eta laguntza erregimen bat finkatuko du, familia guztiei, eta bereziki baliabide ekonomiko gutien dituztenei, 0-3 urteko ikastetxeetara sarbidea ahalbidetuko diena.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehena.- Nafarroako Gobernuak 0-3 urteko ikastetxeen titularitatea duten Udalekin beharrezko akordioak itxiko ditu, Foru Lege honetan biltzen dena indarrean sar dadin.

Bigarrena.- Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak 0-3 urteko etaparen garapenerako plan bat onartuko du, foru lege honen xedapenekin bat datorrena. Plan horretan 0-3 urteko etapan murgilduta dauden ikastetxe eta laguntza zentru guztiak hezkuntza sare berean sartuko dira modu progresiboan, Hezkuntza Departamentuaren menpe daudenak, nola Ongizate, Kirola eta Gaztedia Departamentuaren menpe daudenak. Sare hori osatuko duten ikastetxeen arteko lurralde oreka egokia aintzat hartuko du.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Lehena. Nafarroako Gobernuak Foru Lege honetan bildutakoa garatzeko eta indarrean jartzeko beharrezkoak diren araudi-xedapenak emanen ditu.

Bigarrena. Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.